

Herri Aldizkaria

Otamotz

2004ko maiatza 97. alea



Pello Aranburu, Arzakeko sukaldea astintzen duen eitzatarra

ERREPORTAJEA: SEKULA EZ DA BERANDU EUSKARA IKASTEKO
ELKARRIZKETA: JON PLAZAOLA

IZERDI PATSETAN: AFIZIONATU MAILAKO HERRIKO TXIRRINDULARIAK

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Labeaga, 56-58 - 20700 URRETXU (Gipuzkoa)
☎ 943 03 66 94 - ☎ / fax: 943 72 64 63
e-mail: premank@euskalnet.net

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Labeaga kalea, 60 ent. N
Tel. / fax: 943 72 64 63
e-mail: irnasa@facilnet.es
URRETXU

ARGAZKI ZAHARRA



60ko hamarkadan Urretxuko lekaimeen eskolako ikasleei ateratako argazkia.

Goiko ilaran: M^a Carmen Osés, Rosa M^a Aranburu, Arantxa Arakama, Juanita Elgarresta, Arantxa Zabalo, Feli Etxeberria eta Mariasun Mikelestorena.

2. ilaran: Angelines Dominguez, Estela Terrazas, Begoña Bastarrika, Itziar Arakama, Karmenxutxo Hidalgo, Kontxi Benito eta Paulina del Barrio.

3. ilaran: Maribel Zabala, M^a Angeles Iparragirre, Arantxa Aranburu, Arantxa Salegi, Charito Delgado, Heli Barbero eta Juliana Pastrian.

4. ilaran: Mila Zabalo, Clarita Etxeberria, Lourdes Ayuso, M^a Isabel Larrañaga, Clotilde Osinalde, M^a Vitoria Rodriguez eta M^a Sol Ibarreta.

Beheko ilaran: Arantxa Murua, Conchi Garcia, Koro Mercero eta M^a Angeles Arroyo.



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73

Koordinatzailea: Asier Zaldia **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldia.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Alkateak Alvaro Amann-ekin bildu ziren

Alvaro Amann Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan sailburuak Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako alkateekin bilera izan zuen hilaren 11n Zumarragako Udaletxean. Urola Garaiko garapenerako agentziak, UGGASAK, deitutako bilera honetan egun RENFErenak diren lurretan bi udalek jarri nahi duten autobus geltokiaz eta Abiadura Handiko Trenaz hitz egin zuten.

Urretxu eta Zumarragako alkateek geltoki berriaren egitasmoa aurrera ateratzeko laguntza eskatu zioten Garraio eta Herri Lan sailburuari. Geltoki hau egun RENFEren kontainer




geltokia dagoen tokian jarriko litzateke eta alkateek lursail hori erosteko RENFE, estatua, Eusko Jaurlaritza eta bi Udalak akordio batera heldu beharko liratekeela uste dute. Alvaro Amann-ek gaia aztertuko duela agindu zuen.

Alkateek eta Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan sailburuak izandako bileran, Abiadura Handiko Trenaz ere hitz egin zuten. Amann-ek

adierazi zuenez, uztailen aurkeztuko den proiektuak Ezkio-Itsason merkantzi trenentzako eta bidaiari trenentzako geltokia jartzea aurriztatu du.

Talgo trenaren istripua



Apirilaren 27an Irun-Bartzelona Talgoa deskarrilatu zen Zumarragako Secundino Esnaola kale parean. Sei bagoietatik hiru izan ziren errailetatik irten zirenak. Trena oso poliki zihoanez, Zumarragako geltokian gelditzera baitzihoan, istripuak ez zuen ondorio larririk izan.


Merkatarien Astea

Urretxu eta Zumarragako merkatariek elkartean Merkatarien Astea ekainaren 7tik 17ra bitartean izango da. Ekainaren 7an, 8an eta 9an, 14:30etatik 16:30etara, Bi-Tartean elkarteko merkatariek dekorazio ikastaroa izango dute. Ekainaren 10ean, 16:00etatik 17:00etara, herriko gaztetxoek marrazteko aukera izango dute Euskadi enparantzan. Parte hartzaile guztiek sariak jasoko dituzte. Ondoren, mozerro dantzaldia izango da.

Ekainaren 11n, 16:00etatik aurrera, gaztetxoek bezperan egindako marrazkiak ikusgai izango dira Euskadi enparantzan. Giroa alaitzeko, gaztelu puzgarriak ere izango dira 19:00ak bitartean. 18:00etan 500 euroko bi erosketa bale zozketatuko dira Bi-Tartean txartela eskuratu dutenen artean. Bukatzeko, ekainaren 12an, merkatariek afaria eta opari zozketa izango dute.

Ferretería


BRAVO, S.L.



-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - ☎ 943724012 - Faxa: 943725431 - ZUMARRAGA

"Nafar Aroa" ekimena abian da




Argazkia: Jose Luis Garmendia.

Gaizka Arangurenek joan zen ostegunean eskainitako "Nafarroa osoa" hitzaldiarekin eta "Nabarralde" ekimenaren aurkezpenarekin eman zitzaion hasiera Lekaio Kultur Elkarteak antolatutako "Nafar Aroa" ekimenari. Astelehenean, berriz, Nafarroari buruzko erakusketa ireki zen Juan de Lizarazu aretoan. Erakusketa hau ekainaren 6a bitartean zabalik izango da. Asteburu honetan Lekaioako Erriberara joango dira asteburu pasa egitera. Datorren asteartean, 19:30etan, Nafarroari buruzko diaporama izango da Kultur Etxean. Bukatzeko, ekainaren 3an, "Nafarroa egun" izenburupean mahaingurua izango da, 19:30etan, Kultur Etxean.

Batzokiko mus txapelketa

Hilaren 7an Zumarraga-Urretxuko Batzokiko 20. Mus Txapelketako finala jokatu zen Batzokian bertan. Aurtengo txapelketako finalean Pablo Izagirre eta Eusebio Areizagak Ventura Fraile eta Antonio Godoy-ren aurka neurtu dituzte indarrak, lehenengoek osatutako bikotea garaile irten delarik. Hirugarren postuan Ricardo Damian eta Jesus Hurtado sailkatu dira eta laugarrenean, berriz, Antxon Etxaniz eta Juanito Lakunza. Txapelketako 12 bikote onenak Haroko Bodegas Bilbainas-era joango ziren hilaren 22an.



Itsaski zozketa

Argazkian Gema Fernandez lagunarekin gustura asko ikus dezakezuen Belen Baztarrikak irabazi zuen apirilko itsaski zozketa. Maiatzeko zozketa, berriz, Belen Heccek irabazi du. Euskararen normalizazioaren aldeko hurrengo itsaski zozketa ekainaren 4an izango da, 20:30etan, Urretxuko Ederrena pilotalekuko tabernan.



Herri Aldizkaria
Otamotz

aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.
Merkea eta ona!

Narmanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

centro óptico
Javier Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

GUREA

Iturgintza

Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Zumarraga-Urretxuko Haur Eskolaren aurkezpena

Ikerne Badiolak eta Jon Zufiaurrek, Zumarraga eta Urretxuko Udaletako Hezkuntza batzordeburuek, prentsaurrekoa eskaini zuten joan den ostiralean Labeaga ikastetxeko eraikin berriarekin irekiko den haur eskola aurkezteko.

Haur eskola publikoak 0 urtekoen 8 hurreko bi gela izango ditu eta urte batekoen 13 hurreko hiru gela. Irailean hasi nahi dutenez izen-emate epea ostiral honetan itxiko da. Ekainaren 4an behin-behineko zerrendak argitara emango dira. Baldin eta dauden plazak baino eskaera gehiago aurkezten badira, Haur Eskolak Partzuergoak, ezarrita dituen irizpideen arabera, aukeraketa egingo du. Ekainaren 5etik 15era erreklamazio epea egongo da eta behinbetiko zerrendak ekainaren 21ean emango dira argitara.

Maiatzean eta datorren urteko urtarrilean izena emateko



beste bi epe irekiko dira. Maiatzean izena ematen duten gurasoen haurrak irailean hasiko dira haur eskolan eta urtarrilean izena ematen dutenenak, berriz, 2005eko maiatzean.

Zumarraga-Urretxuko Haur Eskolak familien beharren arabera zehaztuko ditu ikasturteko ordutegi eta egutegia. Haur Eskola 11 hilabetez egunean 11 orduz irekita egotea eskainiko da eta haurrak ezingo dira egunean 8 ordu baino gehiago egon Haur Eskolan.

Irailean, gurasoek instalazioak ikuste-ko eta Haur Eskolan izango diren 8 hezitzaileekin lehen hartu emanak izateko aukera izango dute. Ikasturtea hasi aurretik, bi asteetan zehar egokitzealdi bat egongo da eta gurasoak eskolan bertan egon behar dira bizpahiru orduz haur eta hezitzaileekin batera.

Herriko bertsolariak, finalera

Urretxu eta Zumarragako Bertso Eskolako Manex Mantxola eta Amaia Iturrioz Gipuzkoako Eskolarteko XXIV. Bertsolari Txapelketako finala jokatzeko sailkatu dira. Manex eta Amaiak Beasain eta Idiazabalgo beste bi gaztetxorekin



osatu dute taldea eta joan zen ostiralean jokatu zuten lehen kanporaketa Beasaingo Usurbe antzokian. Finala, berriz, ostiral

honetan izango da, 16:00etan, Zarauzko Aritzatalde pilotalekuan. Zorionak eta zorte on!

Lore Sariketa

Urretxu eta Zumarragako Udalek, loreak zainduz bi herriei itxura atseginagoa ematen dioten bizilagunak saritzeko asmoarekin, Lore Sariketa antolatu dute. Epaimahaiak uztailaren 5etik 9ra bitartean aztertuko ditu leiho, balkoi eta baserrien sarreretan jarritako loreak. Sari banaketa uztailaren 17an egingo da, 12:00etan, Urretxuko Udaletxeko Areto Nagusian. Guztira, 15 sari banatuko dira. Kaleko balkoi eta leihoen artean 30 euroko hamar sari, diploma eta opari bana banatuko dira eta baserrien artean, berriz, 30 euroko bost sari, diploma eta opari bana.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

2004ko maiatza

Kiroldegiko obrak hastera doaz

Urretxuko Udalak kiroldegiko obra egutegia prest du jada. Egutegiaren arabera, obrak ekainaren 21ean hasiko dira eta kiroldegia urrian irekiko da.

Kiroldegiko estalki berriak egurrezko egitura izango du eta kurbatua izango da. Pello Gonzalez alkateak aipatu digunez, estalki berria "aurrekoa baino hobea izango da estetika, aireztapen eta argitasun aldetik, alboetan eta aurrealdean leihoak izango baitira". Horretaz gain, estalki berria pisu handiagoa jasateko prestatua izango

da, noski. Lehengo metro karratuko 50 kilo jasateko prestatua bazegoen, berriak 80 kilo jasan ahal izango ditu.

Alkateak esan digunez, aseguru etxeak emango duen dirua nahikoa izango da obra ordaintzeko. "Aseguru etxeak estalki zaharraren antzeko bat jartzeko behar den dirua emango digu. Beste mota batekoa jarriko dugunez, gastu gehigarria Udalak ordaindu beharko luke; baina lehengoaren eta berriaren kostua antzekoa dela esan digute".

Ikastolako ikasleen erakusketa

Hil honetan Ikastolako haurrek berrerabilitako materialez egindako eskulan erakusketa ikusgai izan da Itarte Etxean. Bertan, 4 eta 16 urte bitarteko haur eta gaztetxoek egindako ehundik gora eskulan izan dira.

I k a s t o l a k, Unescorekin sinatu zuen hitzarmenean oinarriturik ekin zion ingurumenaren gaiari arreta berezia jartzeari. Horretarako, Ihintza Taldea sortu zuen. Orduetik, talde honek ingurumenaren inguruko hainbat ekimen abian jarri ditu: paperaren erabilera egokia, zabor bereizketa, pila bilketa... Itarte Etxeko erakusketa ere Ihintza



Taldeak bultzatua da. Ekimen honen bidez, ikasleen artean, erosten hasi aurretik, bererabili daitezkeen materialik ote duten begiratzeko ohitura sortu nahi dute.

Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmena

Zumarragako Udalak eta Eusko Ikaskuntzak lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten maiatzaren 18an. Kultura eta Euskara batzordeek bultzatutako hitzarmenaren sinadura ekitaldian Jose Luis de la Cuesta Eusko Ikaskuntzaren Gipuzkoako lehendakariordea, Anton Arbulu Zumarragako alkatea, Ikerne Badiola Euskara eta Hezkuntza batzordeburua eta Diego Calvo Kultura batzordeburua izan ziren.

Lankidetzaren hitzarmenaren bidez, Zumarragako Udala Eusko Ikaskuntzaren bazkide ongile bihurtu da eta Eusko Ikaskuntzak bere bigarren aroko argitalpen bilduma emango dio Zumarragako Udalari. Hitzarmen honen helburua, Zumarragako Udalaren eta Eusko Ikaskuntzaren artean adosturiko kultur ekintza desberdinak antolatzea da: ikerketa lanak, argitalpenak, jardunaldiak eta ikastaroak, besteak beste.


Liburuak eta herritarrak, plazara

Urretxu eta Zumarragako Udalek antolatutako Liburuak Plazara ekitaldi sorta interesgarria abian da jada. Igandea bitartean herritarrek Urretxu eta Zumarragako liburutegietan utzitako liburuak salgai izango dira Areizaga-Kalebarren enparantzan jarri udako karpan. Liburu salmentatik aterako den dirua "Libros para el mundo" gobernuz kanpoko erakundeari emango zaio. Erakunde honek, Zumarragako eta Urretxun bildutako diruaz, liburuak erosi eta Kolonbia iparraldeko 35 eskolara bidaliko ditu.

Ostiral honetan, Pako Aristik "Las buenas palabras" liburu aurkeztuko du Areizaga-Kalebarren enparantzako karpan. "Urregilearen orduak" nobelaren gaztelarazko itzulpena den liburu honen aurkezpena 19:00etan hasiko da. Ekitaldi honetan, Pakorekin batera, Ester Tena irakurle urrestildarrak eta liburu gaztelarazko itzuli duen Jose Luis Padronek parte hartuko dute.

Liburuak Plazara ekimeneko azken bi ekitaldiak larunbatean izango dira. 19:00etatik aurrera Patxi Ezkiagaren "Mahats-denboran" liburuaren aurkezpena izango da udako karpan. Aurkezpen ekitaldian, Patxi Ezkiaga bera, liburu marrazkiak egin dituen Concetta Probanza eta liburu ingelesera itzuli duen Xoan Alonso izango dira.

Bukatzeko, 23:00etan, Patxi Zubizarreta idazleak eta Jabier Muguruza musikariak "28 letra eta 7 nota munduari itzulita emateko" emanaldia eskainiko dute Areizaga-Kalebarren. Eguraldi txarra egiten badu, ekitaldi hau Labeaga aretoan izango da.



Karlos Linazasoro

Aita eta Zumarraga

Oraindik aita hil zela hilabete ere bete ez denean, hitz bazuk idaztea eskatzen didate Otamotz aldizkaritik aitari buruz, edo, zuzenago esateko, aitak bere jaioterriarekin izan zuen harremanari buruz. Saiatuko naiz zerbait zentzuzkoa esaten.



Aita Zumarragan bizitu zen Tolosara ezkontzera etorri zen arte. Haurtzaroa, gaztaroa eta bizitzako urterik garrantzitsuenak bere jaioterrian igaro zituen, beraz. Eta horrek, nahitaez, arrasto sakona uzten du, arrastorik sakonena.

Aita sekula ez zen tolosar peto-pettoa izan, inoiz ez zitzaion Goierriko (edo Urolako) marka berezi hori eza-batu. Umorean antzematen zitzaion bereziki ukitu hori, eta gauzei erreparatzeko moduan. Askotan joaten zen aita Zumarragara, hilero-hilero, anaia eta ilobak eta hoteleko izebak bisitatzen. Eta gu ere askotan eramaten gintuen amona bisitatzen, Euzko Izarrara. Jaiotetxearekiko zeukan aitak grina edo maitasun berezia, etxe eder harekiko. Eta trenbidea ere sartuta zeukan bihotzean, gerra ondorengo geltokiko gorabeherak, eta Hotel Urola zoragarria, eta hango otorduak eta joan-etorriak eta izebekin bizitu

zuen harreman goxo ahaztezina. Eta, nola ez, Antiguako eliza. Zenbat bisitariri erakutsiko ote zion edertasun arkitektoniko hori! Hau guztia, baina, hobeto ikus liteke aitak Zumarragari idatzi zion monografian. Tolosari ere idatzi zion berea, egia, baina uste dut (lekuko izan bainintzen bietan) bere jaioterrikoari interes eta bihotz gehiago jarri zizkiola neure jaioterrikoari baino.

Nolanahi ere, aita oso moldakorra zen, irekia, kosmopolita, eta berdin-berdin moldatzen zen hala bailararik galduean, nola hiririk turistikoenean. Tokiak ezagutzean datza gakoa, tokian-tokiko jendeak eta ohiturak eta artea eta historia ttikia. Eta hori gure aitak inor gutxik bezala jakin zuen egiten, eta inor gutxik bezala transmititzen.

Aitaren langile sen hori nik uste goierrikoa zela, zekien guztia erakutsi behar hori, umoretsu beti, sekula ordainetan ezer eskatu gabe. Nik uste gure aita kasta berezi bateko azken gizakietakoa izan dela, gauzak egiteari beldurrik ez zionetakoa, aurrerakuntza basatitik libratu zena, autodidakta eta hainbat gauzatan pionero, begirada birjinarekin joan zena, irribarrea ezpainenetan, bizitzeko gogo hori beste nonbaitean kutsatzera.



**SUKALDE
ERAKUSKETA**

Ipeñarrieta, 5
☎ 943 72 50 75
20700 URRETXU

ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

Zer moduz ibili zara aurtengo Iñaki Beitiaren omenezko mendi martxan?



Alvaro Cuadra


Getxokoa naiz eta aurren hirugarrenoz etorri naiz.

Hiru aldietan ibilbide luzea egin dut.

Lesionatuta etorri naiz eta

Aizpurutxotik Urretxu-Zumarragara autoan ekarri naute. Ahal dudan guztietan egiten dut mendi martxa hau, gogorra baita eta Hiru Handiak martxa prestatzeko oso ondo baitago.

Urretxu eta Zumarraga ez nituen ezagutzen Mendi Martxa egitera etorri nintzen arte.



Jesus Luis Martinez

Balmasedakoa naiz eta laugarrenoz etorri naiz Iñaki Beitia Mendi Martxa egitera. Oso gustura ibili naiz, baina

40 kilometro soilik egin ditut, oharkabeen bidetik atera baikara. Nire martxa kuttunetakoa da, gogorra baita eta oso ondo antolatua baitago.



Nekane Mujika eta Josu Goia

Beasaindarrak gara eta lehenengoz etorri gara Mendi Martxa egitera.

Lagun baten bidez izan dugu mendi martxa honen berri eta motza egitera etorri gara. Gehien gustatu zaiguna Irimo inguruko parajea izan da.

Martxa batean parte hartu dugun lehen aldia izan da.



Iñigo Tobar

Laugarren edo bosgarren aldiz jarraian egin dut Mendi Martxa. Urtero ibilbide motza egiten dut. Oso gustura ibili naiz, eguraldia ibiltzeko aproposa izan baita. Antolaketa oso ona da eta urtero ibilbidea aldatzeak meritu handia du.

colors
arropa informala
Kalebarren, 12
Zumarraga
943 72 40 57

MODAYANG
-Arropa
-Zapatak
-Osagarriak
Udaberriko moda-modako arropa, preziorik onenean!
Labeaga, 43 behea - Urretxu
☎ 943 53 48 68

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70



UROLA
ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

Pello Aranburu,

Pelok 13 ürte

Maiatzaren 10ean Eitzako Gazte Txokora hurbildu zirenek, goi mailako sukaldaritza erakusketaz gozatzeko aukera izan zuten Pello Aranburu auzokidearen eskutik. Pelok 13 urte daramatza Arzak jatetxeko sukalde-buru lanean eta Donostiako sukaldari handiaren konfidantzazko sukaldarietako bat da. Hala, hilaren 21ean Madrilen izan zen Asturiasko Felipe printzearen eta Letizia Ortizen ezkontza bezperako afaria prestatzen. Halako bazkari eta afari sonatuak prestatzera heldu aurretik bete duen lan ibilbideaz eta Arzaken egiten duen lanaz luze eta zabal hitz egin dugu Pellorekin.

Non egin zenituen ikasketak?

Zumarragan ikasi nuen, La Sallen, 14 urte arte. Gero, Institutura pasa nintzen eta, bertan ikasten ari nintzela, 2. BUP-en, asteburuetan Kalebarreneko Unanue taberna-jatetxean lanean hasi nintzen. Unanue garai hartan Zumarragan zegoen jatetxe onena zen, bai niretzat eta bai beste jende askorentzat. COU bukatu ondoren, Donostiara joan nintzen seminariora magisteritza ikastera. Asteburuetan Unanuenean lanean jarraitzen nuen, astetik atera gauzak ikasten. Seminarioan bi urte egin ondoren, magisteritza ikasketak utzi eta sukaldari eskolara pasa nintzen.

Unanuen oso gaztetan hasi zinen... sukaldean hasiera-hasieratik?

Unanuenean, 15 urterekin, barran hasi nintzen; baina saltsero samarra nintzenez, jangelan laguntzen muturra sartu nuen eta, gero, baita sukaldean ere. Oinarrizko pauso guztiak han egin nituen: bai mostradorean, bai jangelan eta bai sukaldean. Puri eta Joxe Mari nire lehenengo maisuak izan ziren eta sekula ez dut ahaztuko

Eitzako sukalde-maisua

daramatza Arzak jatetxean sukalde-buru lanean

beraiekin ikasi dudana. Bertan sartu zitzaidan barruraino magisteritza ikasketak uztera bultzatu ninduen sukaldezaletasuna. Gauzak nola diren, magisteritza utzi, baina azkeneko urte hauetan maisu lanak ere egiten ditut. Izan ere, Arzak-eko sukaldean 30 bat egongo gara lanean, baina horietatik batzuk etxeko langileak dira eta besteak praktikak egiten ari direnak.

Zeintzuk izan dira zure maisu garrantzitsuenak?

Unanueneko Joxe Mari eta Puri Berasategi, Jose Juan Castillo eta Juan Mari Arzak, noski. Jose Juan Castillori asko zor diot, gauza asko irakatsi baitzizkidan. Tartean, beste jende askorekin ikasi dut asko, nire amarekin ere bai.

Unanuetik Arzakera bitartean, non ibili zinen lanean?

Praktiketako lehen urtea Getarian egin nuen, gero Igeldoko "Mendizorrotz"-en jarraitu nuen eta azkeneko urtean Bartzelonara joan nintzen. Ordurako Unanue utzita nuen. Bartzelonan hilabete batzuk eman nituen lanean, "El Dorado Petit"-en, eta Donostiara bueltatu nintzen, "Nicolasa" jatetxera. Castillorekin "Nicolasa"-n lau urte eman ondoren, Bilboko jatetxe handi batera joan nintzen sukalde-buru bezala. Handik Ibizara joan nintzen, "Ku" diskotekara. Arraroa dirudi, baina oso jatetxe ona zen. Han bi udako denboraldi eman nituen, tartean, neguan Pariseko jatetxe batean ere izan nintzen.

Nolatan hasi zinen "Arzak" jatetxean lanean?

Ibizan bigarren urtez nengoela, Juan Mari Arzakek deitu zidan ea bere etxera joango nintzen esanez eta harrezkerro han nago. Aurten 13 urte egingo ditut bertan sukalde-buru lanean.

Juan Mari Arzakek berarekin lan egitea

eskaini zizunean, ez zitzaizun asko kostako erabakia hartzea...

Ekainean Ibizara joaten da oportetara eta, niri deitu baino lehen, nire nagusiarekin hitz egin zuen. Berak esan zidan Juan Marirekin hitz egitera joateko. Juan Marik egun dudana eskaini zidan eta argi esan zidan nire nagusiarekin hitz egin zuela lehenengo eta berak ondo ulertu zuela Arzakenea joatea nire karreran aurre-pausoa zela. Handik egun batzuetara erantzungo niola esan nion. Arzakekin hitz egin ondoren, lehendabizi amari deitu nion

"Sekula ez dut ahaztuko Unanueko Puri eta Joxe Marirekin ikasi dudana"

eta, ondoren, Jose Juan Castillori. Izan ere, Jose Juanekin Donostiara bueltatzekotan bere etxera bueltatuko nintzela gelditu nintzen. Castillo bera izan zen Juan Mariri nire izena eman zionetako bat.

Sukaldaritza munduan ere fitxaketak egoten dira, beraz...

Fitxaketak izaten dira, bai, baina zoritxarrez sukaldaritza munduan ez da futbol munduan bezainbeste diru mugitzen! Dena den, halakoak enpresa gehienetan emango direla suposatzen dut. Sukaldariok, momentuz behintzat zortea dugu, beti lortzen baitugu lanpostua.

Euskal Herriko sukaldariak, gainera, ospe handia duzue...

Maila altua dugu, baina mundu osoan daude sukaldari eta sukaldaritza onak. Askotan munduko onenak garela pentsatzen dugu... Dena den, egia da arrai-netarako, adibidez, esku berezia dugula.

Sukalde-burua izanik, Arzaken hurrengo izango zara...

Halaxe da. Bere alaba ere hor dago. Juan Mari ez dagoenean, bere alabak betetzen du bere tokia. Nire postua aparte dago: sukaldean gauden 30 pertsonen antolaketaz, erosketen antolaketaz, sartzen den generoaren kontrolaz, bazkari eta afari garaiko koordinazioaz... arduratzen naiz. "Eskenatokiaren atzean" geroz eta lan handiagoa dago: komunikabideei kasu egin behar zaie, internet bidezko erreserbez arduratu, gero eta urrutiagoko hornitzaileak ditugu...

Nolakoa da zure lan eguna?

Goizeko 10etan sartzen naiz lanean. Eskaera batzuk bezperan egiten ditut eta beste batzuk goizean egin behar ditut. Sukaldean jendea martxan jarri behar da, heltzen den jeneroa aztertu, zerbait eskainiz ate joka datozenen jeneroa aztertu eta *trapitxeoa* egin, ordaindu... Goiz guztia sukaldean bueltaka ematen dut. Arraina, normalean, nire eskuetatik pasatzen da eta nik ebakitzen dut dena eguerdirako. Bazkari garaian dena koordinatu behar dut. Arratsaldean, 19:30etan bueltatzen naiz eta antzerako lana egiten dut. Ahalik eta gehien kozinatzen dut, baina goizean ez dut su gainean egoterik. Horretaz gain, normalean, saltsa batzuk probatzen ditut. Nire aurretik gai-nontzekoek probatu dute eta beraientzat ondo daude, baina beste filtro baten moduan egiten dut. Juan Mari ere, kanpoan egitekorik ez badu, gainean egoten da. Bere gustukoa ez den zer edo zer ikusten badu, alto!

Errezeta berrien diseinuan parte hartzen al duzu?

Bai. Horretarako beste sukalde bat dugu eta han bi mutil egoten dira (Igor eta Xabi) plater berriak egiten. Plater berri horiek ateratzen dituztenean, sukaldera jaisten dituzte testa pasatzera. Beheko

sukaldean jendeari gustatzeko falta zaiona ematen diogu. Oinarrizko ideiak gehiengatik Juan Mariren burutik irteten dira, baina besteen ideiak garatzen ere uzten du. Besteok egindakoa gustatzen bazaio, kartan sartzen du eta Arzakeko platera izango da. Horretan oso pertsona irekia izan da beti.

Juan Mari Arzak telebistaz dirudien bezain jatorra al da?

Bai, bai, telebistan azaltzen den bezalakoxea da. Oso jatorra da. Nahiz eta oso altu egon sukaldaritzan kontuan, sekula ez du ahazten nondik etorri den. Intxaurrondokoa dela esaten du beti eta bere auzoa asko maite du. Oso herrikoa da eta ez da batere harroa. Bere maila baino gutxiago duten asko bera baino harroagoak dira. Gure gora-beherak izaten ditugu, baina ondo konpontzen gara.

Zein izan da bere irakaspen handiena?

Jeneroari ematen dion garrantzia. Beti onena erostea. Bestalde, langileekin duen portaera ere azpimarratzekoa da. 30 lagun baino gehiago gaude etxe horretan lanean eta nik baino urte gehiago daramatzaten asko eta asko daude. Askok 20 urte baino gehiago daramatzate bertan lanean eta horrek asko esan nahi du Juan Mariren alde.

Bezeroekin egotea tokatzen al zaizu? Arzak ez dagoenean, adibidez.

Ez, baina Zumarragakoak joaten direnean beti beraien mahaietara joaten naiz. Niretzat oso mahai garrantzitsuak izaten dira horiek. Bezero guztiak bertatik gustura ateratzea nahi dut, baina herrikoak edo auzokoak direnean oraindik eta ilusio handiagoa duzu. Askotan, herriko jendeari afaltzen emateak pertsonaia ezagunei afaltzen emateak baino ilusio handiagoa ematen dit.

Pertsonaia ezagunei harrera egitea edo tokatu al zaizu?

Sukaldean bezeroentzat mahai bat dugu eta jende ezagunak mahai hori nahia- go izaten du pribatuagoa delako. Mahai horretan pertsonaia ezagun asko eta asko izan ditut. Donostiatik kanpo jende ezagunarentzat afariak ematea ere tokatu zaigu. Duela bi edo hiru urte New Yorken Julian



Pello, Eitzan prestatu zituen jakien zozketa irabazi zutenekin.
Argazkia: Vicente Bernabé.

“Baditut nahikoa burukomin eta jatetxea irekiko banu bikoiztu egingo lirateke”

Schnabelen etxean egin zen festara gonbidatu gintuzten eta, bertan, Robert de Niro, Lauren Bacall, Woody Allen... zeuden.

Arzakeko sukalde-burua izanik, lanetik kanpo ere konpromiso ugari izango dituzu...

Bai, baina askotan gustukoak izaten dira. Eitzako jaietako hitzaldia, adibidez, bihotz-bihotzez eskaintzen dut.

Ez al duzu sekula zure jatetxea irekitzea pentsatu?

Oso gaztea naiz horretarako! Oso gustura nago nagoen tokian. Baditut nahikoa burukomin eta jatetxea irekiko banu nire burukominak bikoiztu egingo lirateke.

Euskal Herrikoaz gain, nongo sukaldaritzan atsegin duzu bereziki?

Kataluniakoa asko gustatzen zait,

Galiziakoa ere ona da... penintsula iparraldeko toki guztietako sukaldaritzak da ona, Kataluniatik hasi eta Galiziara. Frantsesa ere atsegin dut, italiarra, japoniarra, txinatarra... Sukaldaritzak txinatarra ez da hemen ezagutzen duguna bakarrik. Txinan Europa osoan baino aukera gehiago duzu, oso handia baita. Amsterdam-en Surinameko sukaldaritzak ezagutu nuen: latinoamerikako ikutua duen sukaldaritzak txinatarra da. Nahasketa hura asko gustatu zitzaidan. Mundu guztian daude sukaldaritzak onak.

Oporretara joaten zarenean ere, lanean jarraitzen duzu beraz...

Nahitanahiez jatetxe berezietara joateko aurrekontua egin beharra dut, nire lana da. Hori dela eta, nahiz eta hotel on batera joan ez, jatetxerik onenetara joan beharra dut.

Jakiren bat bereziki gustukoa al duzu?

Jaki asko gustatzen zaizkit... Makailoa asko gustatzen zait, nire amaren zopa, txipiroiak ere asko maite ditut, patata tortila, arrautza frijituak eguneroko jango nituzke, baratxuri zopa... Bi arrautza frijitu eta patata frijituarekin zoriontsua naiz. Jatetxean eguneroko bazkaria egiten dugu guretzat, edozein etxetan bezala.

Etxera etortzen zarenean, amaren sukaldaritzak

dean sartzen al zara?

Amaren etxera etortzen naizenean, gutxitan sartzen naiz sukaldean. Nik baino hobeto berak egiten duela uste dut. Gabonetan, denok elkartzeko garenean, nik egiten dut aspalditik afaria; amarentzat lan handia baita. Gainera nire familikoentzat egiten dudana urteko afari bakarra da eta ilusio guztiarekin egiten dut.

Euskaldunok ondo kozinatzen eta jaten jarraitzen dugula uste al duzu?

Pittin bat erosotu gara, baina ez bakarrik sukaldean. Jendeak gero eta lan gehiago egiten du etxetik kanpo, gure amak bezala goiz guztian etxean dauden emakume gutxi daude... Erosotu garen arren, ez dugu sukaldeazaletasuna galdu oraindik. Etxetik kanpo ateratzen garenean ere, ondo jaten dugu. Hanburesak eta antzerakoak ematen dituzten toki asko daude, baina bokadiloak hobekien dira eta asko saltzen

dira. Hanbureseriak hemendik urte batzuetara jarraitzen duten ikustear dago, baina bokadiloek, eguneko menua ematen duten jatetxeek... hor jarraituko dute.

Gehienok sekula ez dugu Arzak edo antzerako jatetxe batean jan, zer esango zeniguke bizitzan behin sikira bertara joan gaitezen?

Mundu osoko jendea etortzen da gure jatetxea ezagutzera. Hori dela eta, bertakook behin sikira joan beharko genuke. Hura jatetxe arrunta da. Jende askori beldurra ematen dio, baina behar diren mahaitresnak soilik jartzen ditugu, tratua normala eskaintzen dugu, kamareroa ez da bezeroen atzean egoten... Hango langile guztiok jende arrunta gara eta han barruan kanpoan bezalakoxeak gara. Jendea lasai egoteko moduan tratatzen dugu eta maitrea jendeari laguntzeko dago. Denok dakigu jatetxe batera joaten garenean nola egon behar dugun.

Arzakak, Asturiasko printzearen ezkontzan baino hobeto

Arzak jatetxeak duen ospea dela eta, sarritan luzatzen diete ekitaldi berezietan bazkari edo afariak prestatzeko gonbitea. Hala, Pello New Yorken, Bartzelonan, Madrilen, Marbellan, Vega Sicilian eta Alsazian, besteak beste, izan da lanean. "Gehiegitan ere ez gara ateratzen, nahiko gogorra baita: hango suak ez dituzu ezagutzen, hemendik eraman behar da jeneroa... Bidaia horiek antolatzea zoramenaz izaten da".

Maiatzaren 21ean Pello Madrilen izan zen, zorioneko ezkontza bezperako afaria prestatzen. Dena den, Eitzako seme peto-pettoa izanik, Eitzako jaietan eman duen klasea garrantzitsuagoa izan da berarentzat. "Maiatzeko garrantzitsuenak Eitzako jaiak izan dira... Niretzat garrantzia handiagoa du Eitzan eman dudana klaseak Madrilen eman dugun afariak baino. Madrilerara joan beharra genuen eta joan gara".

Afari horretako euskal ukitura zein izan zen galdetu diogu Pellori eta hara erantzuna: "Gure eskua eta batzuei afari hori euskaldunek eta kataluniarrek eskaini izanak emango zien amorrua..."

gutxi iruditzen al zaizu?".

Madrilen mundu osoko gonbidatuak izan direnez, ez omen zen batere erraza izan guztien gustuko afaria prestatzea. "Gonbidatu kopuruagatik baino, kanpoko jende asko zegoelako izan da berezia. Mundu osoko jende garrantzitsua izan zen eta mundu osoko komunikabideetan proiektio handia izan du. Mundu osoko gonbidatuak zeudenez, guztien gustuak kontuan izan ditugu: batzuei ez zaie baratxuria gustatzen, beste batzuek ezin dute txerriak jan, arkumea ere berezia da, hemendik kanpo arrain gogorra legatza baino nahiago dute... Juan Mari Arzakak eta Ferran Adriaren platerak eskaini genituen, baina aldaketa txiki batzuekin".

Edozein egunetan Arzakera joaten direnek, halako bazkari edo afarietako gonbidatuak baino hobeto jateko aukera omen dute. "Zure etxean, zure sukaldean... askoz ere lasaiago eta zuk nahi duzun moduan lan egiten duzu. Arzakera joaten direnek, halako bazkari edo afarietako gonbidatuak baino askoz ere hobeto jaten dute".

Montoya & Santaluzas Electricos
HERCE
Eledunak, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETUXU

TABERNA

Jaurretu
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA


belor zain

Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura
Labeaga, 30 ☎ 943 72 27 80
URRETUXU

PAKO VIERBUCHER

Ezkontza erreportajeak
Argazki estudio eta artxiboa
Prozesu digitalak
Bideo profesionala
Argazkigintza materiala

Legazpi, 5 - ☎ 72 11 55 - Zumarraga


MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETUXU



Sekula ez da berandu euskara ikasteko

Sekula ez da berandu ikasteko esaera haintzat hartuta, Zumarragako Jubilatuen Etxeko 15 lagun Udaleko Euskara eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeek beraientzat antolatutako euskara ikastaroan parte hartzen ari dira. Ekainaren 3an bukatuko dute ikastaroa eta, dagoeneko, dendetan euskaraz eskatzen eta bilobekin euskaraz hitz egiten ausartzen dira. Oraingo honetan ere arrazoi osoz esan daiteke badugula adineko jendearengandik zer ikasi!

Zumarragako Udaleko Euskara batzordeak antolatutako ikastaro honetako irakaslea Iker Zaldua beasaindarra da. Iker Bisasti AEK euskaltegiko irakaslea ere bada eta lehenengoz ari da adineko jendeari klase ematen. "Ez nuen esparru hau ezagutzen, baina adineko jendeari klaseak ematea eskaini zidatenean aurrera egitea erabaki nuen".

Iker oinarrizko ikastaroa eskaintzen ari zatzaie, ikasle gehienek euskaraz tutik ere baitzekiten ikastaroa hasi aurretik. "42 orduko ikastaroa denez, aditzekin eta sartzen bazara nahastu egiten dituzu. Hori dela eta, oinarrizkoa erakusten diet: hiztegia, dendetan eskatzeko esaldiak, haurrekin erabili daitezkeen espresioak...".

ERREPORTAJEA

Jubilatuak astelehen eta asteazkenetan, 16:30etatik 18:00etara, hartzen dituzte euskara klaseak. Otsailaren erdialdean hasitako ikastaroa ekainaren 3an bukatuko dute. "Azken klase hauetan, orainarte ikasitakoa errepasatzen ari gara. Ikastaroa hasi aurretik helburuak oso zehatzak jarri genituen: ohiko erosketak euskaraz egiteko eta iloba eta bilobekin lau kontu egiteko gai izatea".

Aipatutako helburu hauez gain, ikasleek eurek ere beste zenbait helburu ere proposatu dituzte. "Orduak eta zenbakiak ere ikasi nahi zituztela esan zidaten eta horretan ere aritu gara".

Ikasleek irakasleak agindutakoa baino gehiago ikasi nahi hori ez da oso ohikoa izaten... klaseetara gustura joaten diren seinale. "Eurek ere bazekiten 42 ordutan ez dagoela asko ikasterik, baina oso borondate ona dute. Bai eurak eta bai ni oso gustura gaude, datorren urtean jarraitu nahi dutela esan didate! Izan ere, udan orainarte ikasitakoa ahaztu dezaketen beldur dira".

Zer edo zer ikasi dutez, beraz... "Hasiéran hiru edo lauk amore eman eta ikastaroa utzi zuten, baina gainontzeko guztiek hor jarraitzen dute. Batzuetan

estutu egiten dira edo amore emateko zorian izaten dira eta animatu egin behar zaie. Euren buruarekin oso gogorrak dira eta zer edo zer ikasi dutela sinestarazi behar zaie".

Zer edo zer ikasi dutela konturatzaren direnean, lotsa handirik gabe hasten omen dira euskaraz. "Hiru edo lauk dendetan eta bilobekin euskaraz egiten saiatzen direla esan didate. Batek, mendira koadernoan eramaten duela eta menditik jaisten denean, koadernoko apunteak erabiliz, erosketak egiten dituela esan dit. Lotsarik ez dute eta hori da garrantzitsua. Ulertu, ulertuko dizuete, zuek bota! esaten diet".

Ikasleen jarrera bikaina ikusirik, Iker datorren urtean ere jubilatuei euskara ikastaroak emateko prest ageri da. "Niretzat oso garrantzitsua da horren jarrera ona ikustea. Datorren urtean ere antzerako ikastaroa antolatzen bada, emateko prest nago. Jende gehiago animatzea gustatuko litzaidake. Euskara ikastea, zerotik hasiz gero, oso zaila da; baina ikastaro honetan edozein taberna edo dendetan eskatzeko eta bilobekin hitz egiteko haina ikasi daiteke. Aspalditik euskara ikasteko asmoa dutenak, inongo beldurrik gabe etor daitezela".

Ikasle benetan saiatuak

Ikerrekin solasaldia izan ondoren, klasera joan ginen argazki batzuk ateratzera eta ikasleekin apur bat hitz egitera. Aipatzeko modukoa da zein gogo onez eta umoretsu joaten diren klasera! Gurekin ere euskaraz hitz egiten ahalegindu ziren eta, esan zigutenaren arabera, klasetik kanpo ere ikasten jarraitzen dute. Hala, beraietako askok, kalean, anbulategian... euskarazko kartelak irakurtzen dituzte eta zer edo zer ulertzen ez badute, hurrengo egunean Ikerri euren zalantzak azaltzen dizkiote.

ETXABURU

merenda-lekua



Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

Conil (Cádiz)

Hondartza ondoan

pisua alokagai

☎ 943 81 23 65

☎ 680 44 26 68



BAPRI

ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak,
katuak, dordokak...

Urdaneta, 3 ☎ 943 72 61 13
ZUMARRAGA



Legazpi, 5
☎ 943 72 62 74
ZUMARRAGA

2004ko maiatza

Telebista izar berria



Futbolaria, artista, kamareroa, zoroa... baina gauza guztien gainera, barre-eragilea dugu Jon Plazaola Urretxuarra. Askok Txiribiton eta Parker Lewisen arteko nahasketatzat badute ere, aski jakina da bere 22 urteekin jada Euskal herri osoan bere izena ezagutaraztea lortu duela, are gehiago orain, ETBko saio baten aurkezle gisa dabilenean.

Ez da makala herrikide gazte honek urte gutxiren buruan izan duen bilakaera. Larunbat gauetako juergetan lagunartean txisteak kontatu eta imitazioak egitetik Euskal Herriko pantaila txiki guztietan azaltzeraino, mila lan eta antzezlan egina da beste hainbeste herri ezberdinetan. Taberna eta Gaztetxeetatik ETBko kuxkuxeroak saiora igaro zen bromak egitera, baina bidean izan zuen astirik Lokalia telebista kateko monologo txapelketa bat ere irabazteko, Donostiko jai batzuetan jokatu zen finalean Boulevard-ean bildu zen ikuslego anitza hankaz gora jarri ostean. Askoren ustetan barrea eragitea horren zaila ez izan arren, gutxik bete dituzte hainbeste areto horrenbeste algara eta irriz, eta egun, bera da herriotako gaztetxean

biltzen den ikuslego zorrotza asetzen duen bakanetarikoa.

Orain, berriro ere telebistan ikusteko parada dugu; "Europa euskaraz" saio berrian, hain zuzen. Jonek aurkezten duen saio honen sei atal grabatu dira oraingoz eta lehen atala hilaren 5ean eskaini zuen ETB1ek. Saio honetan, Jon Europa osoan bidaiatzen ikusteko aukera dugu, herrialde ezberdinetan bizi diren euskaldunak bisitatu eta elkarrizketatuz.

Amsterdam, Roma, Lisboa, Berlin, Dublin eta Txekiar Errepublikan izan da lanean, batzuetan hiriburutik bertatik irten gabe eta besteetan herrialde osoan zehar bidaiatuz, eta bere hitzetan "espe-

rientzia bikaina izan da".

"Bisitatu ditudan lekuetatik bizileku bezala bat hautatu beharko banu, hori Berlin izango litzateke. Harrituta geratu nintzen hiri hartako kultur-aniztasunarekin. Mugimendu underground sendoa nabari zitekeen, eta artistentzako aukera pila bat eskaintzen dituen hiria da", dio Leioako unibertsitatean Arte Ederren karrera ikasten ari den Jonek. "Hala ere, saioak orainarte denbora gehiegi kendu dit, eta orain kurtso amaiera arte ikasketetan saiatuko naiz buru-belarri, ahal ditudan ikasgaiak aurrera ateratzen saiatzeko".

Ikasleak, apaizak, artistak, okupak, enpresariak... izaera eta bizimodu

anitzetarikojendearekin elkartu da bidaiotan; bakoitza bere istorioekin, bakoitza bere historiarekin. "Elkarrizketatu genituen euskaldun guztiak oso abegitsu portatu ziren gurekin. Asko pozten ziren Euskal Herritik bisitan joan izanaz, ziurrenik herrimina dela eta, ezaugarri hori uneoro azalera zuten baitzitzaien, gehienei behintzat. Inpresio gehien sortu zidana, agian, Erroman okupatuta zuten XIX. Mendeko fuerte militarra izan zen. Erdi Aroko gaztelu bat zirudien bere muraila eta fosoeekin eta normalean bertan 30 bat pertsona bizi badira ere, jaialdi eta festa egunetan 10.000 pertsona ere biltzeraino irits daiteke; izugarria da".

Herrialde bakoitzeko biztanleak adjektibo bakar batez definitu beharko balitu, "Irlandakoak mozkor bezala definituko nituzke, benetan ikaragarria baita gau batean edan dezaketenak. Amsterdamgo biztanleak oso liberalek dira eta Erromatarrek, Obelixek zioen bezala, zoratuta daude. Erromari R bat kendu beharko litzaioke, eta Erroma izena jarri. Portugaldarrak oso jatorrak ziren, ezin esan litekeena Berlindarrei buruz, mendebaldean

"Bizileku bezala bat hautatu beharko banu, Berlin hautatuko nuke"

behintzat nahiko gogaikarriak baitziren. Azkenik, Txekiarrak hotzak direla esango nuke, betiere neska gazte batzuen eszepzioarekin", dio irrifartsu.

Herrialde bakoitzaren ezaugarri bat aipatzeko eskatzen diogunean, zerbeza mota ezberdinak dira burura etortzen zaizkion lehen gauza. "Bavaria, Birra Moreti, Super Bock, Guinness, Franciscaner, Bud Waiser... bai, esan dezaket esperientzia ona izan dela European bidaiatzea, kultura ezberdinak ezagutzeko aukera eman dit", dio barre algaren artean.

Bromak aparte, inork ezin uka dezakeena poliki poliki Jon Plazaola Euskal Herriko izen ezagunen artean berea ezartzen ari dela da. Saio berri hau dela medio, Bertatik Bertaran, Berrian, Asteonen, Euskadi Gaztean eta Otamotzen ere eskaini diote tarteren bat, eta hori ez da ez, hasiera makala. Honela jarraituz gero, nork daki, Julio Ibarrari ere albistegietako lekua ken diezaioke. Amets egitea doan da; ametsak gauzatzen saiatzea da nekeza, baina Jonek erakutsi du, ezinezkoa behintzat, ez dela.

Jon Plazaola Ruben Orbeaskoa txirrindulariari elkarrizketa egiten Portugalen.



BIONA

ARozTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen ediziozko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

✚ kutxa.

fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 72 14 17
ZUMARRAGA



Lanbasa.

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Argazkizale berriak, Argazki Elkartearen bizigarri

28 urte pasa dira jada Urretxu eta Zumarragako argazkizale talde batek Argazki Elkarte sortu zuenetik. Iaz, elkarte indarra galtzen ari zela eta Kultur Etxeko laborategiak geroz eta gutxiago erabiltzen zirela ikusirik, Urretxuko Udalak laborategiak berri eta argazki ikastaroak antolatu zituen. Azken urtebetean ikastaro hauetara joan diren batzuek Argazki Elkarte suspertzeko ardura bere gain hartu dute. Beraien asmoen berri izateko, Idoia Narbaiza, Ana Fernandez, Guillermo Murciego, Juan Cruz Hurtado, Asier Gonzalez, Jabi Alonso eta Jose Mari Llorentekin hitz egiten izan gara.



Zazpi lagun hauek argazkigintzaz zer edo zer ikasteko asmoz hurbildu ziren Kultur Etxera, baina azkenean Argazki Elkartearen ardura hartu dute. "Guztiok lehen edo bigarren ikastaroan parte hartu genuen. Gero, laborategiak erabili nahi bagenituen Elkarteko bazkide egin behar genuela esan ziguten. Azkenaldian inor etortzen ez zenez, zuzendaritza batzorde berria osatu genuen eta, orain, elkarte indartu nahian gabilta. Horretarako, bazkide gehiago behar ditugu".

Hori dela eta, bazkide kanpaina abian jarri dute. "Bazkideak lortzeko ikastaroetan parte hartu duten guztiei gutunak bidali dizkiegu, egunkarietan bilera baterako deialdia luzatu genuen eta gure lanekin Juan de Lizarazun erakusketa ireki genuen. Elkartean parte hartu nahi dutenak, ostegunetan 19:00etatik 20:00etara etor daitezke Kultur Etxera izena ematera. Bazkide

kuota zenbatekoa izango den, bazkide kanpaina amaitu ostean erabakiko dugu. Urtean 20 bat euro izango dira".

Bazkide egin eta argazkigintza munduan murgiltzea erabakitzen dutenak ez omen dira damutuko. "Jendeari probatzen etortzeko eskatu nahi diogu. Probatzen ez bada, ez dago argazkigintza mundua nolakoa den jakiterik eta, benetan, oso erakargarria da. Norberak bere argazkien errebelatua egiteak xarma berezia du: zuk zeuk zerbait gehiago eman diezaiokizu argazkiari, argitu, zuzendu...".

Eurak ere ez omen ziren argazkizale sutsuak ikastaroak egin zituzten arte. "Etxeko kamera nola erabili ikasteko eta antzerako asmoekin joan ginen ikastarotara, baina zaletasun honek asko *enganxatzen* du. Argazkilaritzak xarma berezia du: laborategian ematen ditugun orduak

motz egiten zaizkigu, geroz eta gehiago dominatzen dugula ikusten dugu...".

Argazkizaleen arrua barruan izanik, bazkide kanpaina aurrera ateratzearekin batera, etorkizunerako asmoak biltzen ari dira. "Laborategiak txukuntzen ari gara, ideiak plazaratzen ari gara... Lehen asmoa argazkilaritza ondo ezagutzen duen norbaitekin gure kamerak nola erabiltzen diren ikasteko irteera bat egitea da. Horrez gain, hasi berrientzat hastapen ikastaroak antolatu beharko dira, guretzat jarraipenezkoak, gure argazkiak komentatzeko elkartuko gara, orainarte antolatu diren argazki rally-ak antolatzen jarraituko dugu... Dena den, elkartearen zerbait izango garen jakin arte ezin dugu gauza handirik antolatu. Gainera, lehenengo zuzendaritzako inor aurkeztu ez denez eta argazkigintzaz oraindik gehiegi ez dakigunez, poliki-poliki hasi beharko dugu".

ZORIONAK!



Xabier, dagoeneko Otamotzen "entxufea" duzu eta lehena jarri zaitugu. Zorionak!



Idoia, hori da hori gozamen aurpegia... jakin al daiteke zertan ari zaizkizun? Zorionak!



Agustina, zu bai emakume fina eta ez ezkerretara duzun kaskarina! Zorionak eta ondo ibili!



Ainhoa, zapia buruan eta ibili munduan! Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Ana, zu egiten ari zaren hori ote da gaztele-raz "comer la oreja" deitzen dutena? Zorionak!



Ander, Aznar Estatu Batuetatik bueltan baino tentego ikusten zaitugu... Zorionak!



Ane, zu bai neskatxa alaia... ingurukoek badute zugandik zer ikasi! Zorionak eta ondo ibili!



Asier, ea hurrengoan irri-farre txiki bat eskaintzen diguzun, motel! Zorionak eta ondo ibili!



Asun, Rottermeyer andereñoa Heidiri errieta egiten dirudizu! Zorionak eta ondo ibili!



Asun, zure familiakoak etxeok baino gehiagotan zoriondu ditugun susmoa dugu!



Beatriz, hori da hori aurpegia... udaberria hel-tzearekin batera maitemindu egin al zara? Zorionak!



Cristina, hori da hori bihurri aurpegia duzuna... gu behintzat pakean utz gaitzazu! Zorionak!



Gaizka, dagoeneko zure amak baino gehiagotan zoriondu zaitugu... Zorionak eta ondo ibili!



Gotzone, beheko ilaran dagoen Nereak ostu dizun diruaren bila al zabilta? Zorionak!



Iban, zuk bai txintxo aurpegia eta ez inguruan dituzun horietako gehienek! Zorionak eta izan ondo!



Igone, "Teletindan" iragartzen duten kamera erosi al duzue? Hori da hori argazia...



Igor, kaleko galdera egiteko bolondresa behar dugu, Ormazabalek dimisioa aurkeztu du eta!



Iñaki, neskei begira jarraitzen baduzu lepoa bihurrituko duzu! Zorionak eta ondo ibili!



Irati, nabari da bai eguzkia berotzen hasi dela... hori da hori musugorria duzuna! Zorionak!



Joxepi, erdi betea edo erdi hustua ikusten al duzu begi aurrean duzun botila? Zorionak!



Judit, hori da hori irrifarre diriratsua... hortzak lixibaz garbitzen al dituzu? Zorionak eta ondo ibili!



Lucia, jakin al daiteke ora begira duzun begia? Ondo pasa urtebetetze eguna!



Lucia, horrela jarraitzen baduzue, beste Luciak eta zuk ez duzue sekula elkar ikustea lortuko!



Maialen, ikas-turtea bukatze-za delako al zaude horren pozik? Zuenak bai oporrak! Zorionak!



Maialen, oraingoan ere bere burua heldutzat duen norbaiten tontakeriak jasatea tokatu al zaizu? Zorionak eta ondo ibili!



Maria Rita, zenbat aldiz esan dizute "lo que se da no se quita"? Zorionak eta ondo ibili!




Nerea, pirataz jantzi eta lapur-ri duzun dirua kontatzen ari al zara? Zorionak eta ondo ibili!



Noel, Gabonetan opariak jaso behar-reen banatu egiten al dituzu? Zorionak eta ondo ibili!



Joseba, anaia kontu horretan "profesionala" izanik, etxekoek opari onak jasoko dituzue! Zorionak!



Venancio, hori da hori parre algaral! Ez zara ba gutaz parre egiten arituko? Zorionak eta ondo ibili!

www.megadenda.com

Bergara, 6
20005 Donostia
Tel.: 943 42 63 50

Fermin Calbeton, 21
20003 Donostia
Tel.: 943 42 00 80
(Jai egunetan zabalik)


Megadenda
zure aukera musika eta liburutun

Paseo Colon, 8
20302 Irun
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g
20400 Tolosa
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12
20570 Bergara
Tel.: 943 76 40 50

Urretxu-Zumarragako tropeltxoak



Aurtengo denboraldian Urretxu eta Zumarragak aspaldi ez bezalako ordezkariak dute afizionatu mailako tropelean. Izan ere, bost dira talderen baten babesean profesionaletara heldu aurreko mailan dabiltzan txirrindulariak: Iñaki Lasa, Igor Montes eta Danel Yurrebaso Debabarrena taldearekin ari dira, Gorka Ruiz de Gordoia Serbitzu-Kiroldi taldearekin eta Alberto Merino Banatu taldearekin. Lehenengo lauek afizionatu mailako lehen urtea dute eta Alberto Merinok, berriz, hirugarrena. Ezagutu ditzagun apur bat gehiago.



-Izena: Alberto Merino

-Adina: 21 urte

-Taldea: Banatu

-Zer nolako txirrindularia zara? Igotzailea.

-Aurtengo helburua? Dagoeneko hirugarren urtea dudanez, tropelaren aurrealdean ibiltzea.

-Zer moduz orain arte? Lehen urtean lasterketaren batean 30 lehenen artean sartzea lortu nuen eta igogeretan nahiko

gustura ibili nintzen. Iaz, berriz, alergia arazoak, erorketak... izan nituen.

Aurten, oraindik alergien kontuarekin nabil. Zorte pixka bat ere behar da.

-Klasikak ala itzuliak? Itzuliak. Zenbat eta mendate gehiago hobea.

-Afizionatu mailan gehien atsegin duzun lasterketa? Goierriko Itzulia, etxean baita eta ibilbidea gustatzen baitzait. Bidasoako Itzulia ere atsegin dut, 23 urte-tik azpikoentzat denez, destakatzea errazagoa baita.

-Profesionaletako lasterketa gustukoena? Frantziako Tourra.


-Igotzen dituzuen mendateen artean gustukoena? Gorla, Urraki eta Santa Barbara.

-Telebistan ikusten dituzun horien artean gustukoena? Alpe d'Huez.

-Gustuko txirrindularia? Joseba Beloki, oso erregularra baita.

-Nor pasako zenuke profesionaletara? Olarrako Igor Anton.

IZERDI PATSETAN



-Izena: Gorka Ruiz de Gordoa
-Adina: 18 urte
-Taldea: Serbitzu-Kirolgi
-Zer nolako txirrindularia zara? Terreno guztietan antzera moldatzen naiz.
-Aurtengo helburua: Gustura ibiltzea eta Lehendakari Txapelketan (1. eta 2. urteko afizionatuentzat antolatutako lasterketez

osaturako txapelketa) behintzat aurrean ibiltzea.

-Zer moduz orain arte? Jubenil mailatik afizionatu mailara alde handia dago, abiaduran batez ere. Dena den, lehen lasterketetan gustura aritu naiz. Baten 7. egin nuen, Gorlan 35,....

-Klasikak ala itzuliak? Itzuliak.

-Afizionatu mailan gehien atsegin duzun lasterketa?

Itzuliren batean parte hartzeko gogoia dut. Goierriko Itzulia polita da, baina oso gogorra da.

-Profesionalak lasterketa gustukoena? Frantziako Tourra.


-Igotzen dituzuen mendateen artean gustukoena? Atagoiti Ormaiztegitik igotzea asko gustatzen zait.

-Telebistan ikusten dituzun horien artean gustukoena?

Tourmalet.

-Gustuko txirrindularia? Samuel Sanchez, egunen batean lasterketaren bat irabaziko duela uste dut.

-Nor pasako zenuke profesionalak? Nire taldeko Imanol Ertivi.



-Izena: Danel Yurrebaso
-Adina: 18 urte
-Taldea: Debabarrena
-Zer nolako txirrindularia zara? Ordekan ondo moldatzen naiz, errodadorea naiz.
-Aurtengo helburua: Lehendakari Txapelketako lasterketak bukatzea.
-Zer moduz orain arte? Jubenil mailatik

afizionatu mailara, abiaduran batez ere, alde handia nabaritu dut. Ordekan tropelean ondo joan daiteke, baina igoeretan...

-Klasikak ala itzuliak? Biak. Klasika asko ere ez daude, baina egunen batean Valenciaga lasterketa korritzeak ilusio handia egiten dit.

-Afizionatu mailan gehien atsegin duzun lasterketa?

Oraingoz ez dut lasterketa bat begiz jo, baina hurrengo urteetan Bidasoako Itzulia korritu nahiko nuke.

-Profesionalak lasterketa gustukoena? Flandesgo Tourra, Paris-Roubeaix eta Frantziako Tourra.


-Igotzen dituzuen mendateen artean gustukoena?

Orendain. Duela gutxi asfaltatu dute eta oso ondo dago.

-Telebistan ikusten dituzun horien artean gustukoena? Alpe d'Huez. Igoa dut eta oso gogorra da.

-Gustuko txirrindularia? Laurant Jalabert.

-Nor pasako zenuke profesionalak? Olarra taldeko Ruben Perez.



-Izena: Igor Montes
-Adina: 18 urte
-Taldea: Debabarrena
-Zer nolako txirrindularia zara? Igoerak dituzten lasterketak nahiago ditut, baina aurrean igoeretan larri samar nabil.
-Aurtengo helburua: Lasterketak bukatzen saiatu eta bizikletan gustura aritu, bukatzen

ez dudalako larritu gabe.

-Zer moduz orain arte? Afizionatu mailan jubeniletan baino azkarrago joaten da eta maldan gora hasten garenean berdin jarraitzen dugu.

-Klasikak ala itzuliak? Biak.

-Afizionatu mailan gehien atsegin duzun lasterketa?

Klasikaren bat korritzea gustatuko litzaidake, Valenciaga esaterako.


-Profesionalak lasterketa gustukoena? Fleche Wallone urtero ikusten dut.

-Igotzen dituzuen mendateen artean gustukoena? Atagoiti eta Mandubia.

-Telebistan ikusten dituzun horien artean gustukoena? Tourrean igotzen direnak. Mendate luzeak, erritmoa hartuta igotzen direnak, motzak baino nahiago ditut.

-Gustuko txirrindularia? Richard Virenque.

-Nor pasako zenuke profesionalak? Serbitzuko Josu Agirre.



-Izena: Iñaki Lasa
-Adina: 19 urte
-Taldea: Debabarrena
-Zer nolako txirrindularia zara? Normala... Aldapak gustukoak ditut, baina gazteagotan hobeto moldatzen nintzen...
-Aurtengo helburua: Besterik gabe, ibiltzea. Lanean hasi bitartean bizikletan ibili

nahi dut.

-Zer moduz orain arte? Jubenil mailatik afizionatu mailara alde handia nabaritu dut, gogor entrenatu gabe ez dago zer eginik.

-Klasikak ala itzuliak? Biak, baina aurrean itzuliren bat egitea zaila izango da.

-Afizionatu mailan gehien atsegin duzun lasterketa? Hemen ingurukoak. Goierriko Itzulia egiten badut, hobe.

-Profesionalak lasterketa gustukoena? Frantziako Tourra eta Italiako Giroa.


-Igotzen dituzuen mendateen artean gustukoena? Urraki eta Bidania.

-Telebistan ikusten dituzun horien artean gustukoena?

Tourrean igotzen direnak. Luz Ardiden, esaterako, bertan izan bainintzen.

-Gustuko txirrindularia? Askok. Haimar Zubeldia, Jan Ullrich, Joseba Beloki...

-Nor pasako zenuke profesionalak? Ahal izanez gero, ni.



Ibon Leunda

Ibonek Ikastola eta Lizeoan egin zituen unibertsitatea bitarteko ikasketak. Ondoren, Iruñeara joan zen Nekazal Ingeniari Tekniko ikasketak egitera. "Iruña asko gustatu zitzaidan. Leku lasaia da eta parke asko ditu, Urretxun hori botatzen dut faltan gehien".

Nekazal ingeniari lanik aurkitu ez eta Ibon beste bide batzuk jorratzen hasi zen. Honela, lortuko zuen diruarekin ingelesa ikastera Ingalaterra joateko asmoarekin, hiru hilabete-tarako udaltzain lanean hasi zen.

Hiru hilabetez soilik lan egiteko asmoz hasi bazen ere, jada hiru urte eta erdi daramatza lanbide honetan. "Garai batean ez nuen neure burua udaltzain lanean ikusiko. Lotsati samarra naiz eta hasieran trajea jartzeak ere lotsa ematen zidan".

Denboraren poderioz udaltzain lanera moldatu den arren, ez omen da guztiz ohitu. "Moldatu egiten zara, baina ez zara guztiz ohitzen. Norberaren herrian udaltzain izatea ez da batere erosoa. Beste zerbait probatzea gustatuko litzaidake, baina, beharbada, lan honetan segitu beharko dut".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Ez dakit eta oraindik ere ez, udaltzaina izatea ez da nire ametsa.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Gehienbat kirola. Baita irakurtzea, e-mezuak bidaltzea, ingelesa ikastea...

-Bizitzeko toki bat?

Kostaldeko herri txikiren bat.

-Zein duzu laneko gauzarik gogokoena?

Udaltzainon artean oso giro ona dugu eta, gainera, jende asko ezagutzen duzu. Bestalde, kalean lan egiten dugu eta eguraldi ona egiten duenean hori oso ondo dago.

-Eta zure lanaren alderik txarrenea?

Ezagunei isunak jarri beharra. Baita eguraldi txarrarekin lan egitea eta autoren batek harrapatzeko arriskua.

-Zeini jarriko zenioke isun handia?

Jende askori, bai herrian eta baita kanpoan ere. Orokorrean Espainiako Gobernu guztiari.

-Urretxuarrek buruhauste asko ematen al dizkizute?

Gehienak jatorrak dira, baina badaude arazo izugarriak ematen dituzten batzuk.

-Zer da gidariengandik gehien gorroto duzuna?

Edukazio falta. Norbaiti zer edo zer modu onez esan eta berak modu txarrean erantzutea.

-Egia al da emakumezko batzuek uniformedunak atsegin dituztela?

Nik behintzat ez dut nabaritu, baina jende askok esan dit hori. Edonor kaleko arroparekin hobe dagoela uste dut.

-Txirrinduan ere ibiltzen zara, zein da bizikletan eza-gutu duzun parajerik ederrena?

Eskoziako itsaso ondoko bidezidorrak.

-Zein da igo duzun mendaterik gogorrena?

Lasterketetan Arantzazu igotzea baino gogorragorik ez

zait tokatu. Amabirjiñak ez zidan asko laguntzen...

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Denak, baita ilegorriak ere.

-Egindako azken oparia?

Ez naiz gogoratzen.

-Eta jasotakoa?

Bainu jantzia.

-Data bat?

Nire jaioteguna, 1975eko maiatzaren 11a.

-Neska eta mutil izen bana?

Beñat, nire iloba, eta Amaia.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Ez dut egunkaria irakurtzeko ohiturarik, baina noizean behin Berria erosten dut.

-Gustuko telebista saioa?

Ez dago aukera handirik. Garai batean "Bertatik Bertara" ikusten nuen eta egun "Politicamente incorrecto".

-Bereziki gorroto duzuna?

"Gran Hermano" eta antzekoak.

-Liburu bat?

Julio Vernereren edozein.

-Filme bat?

"El indomable Will Hunting", baina Argentinako filmak ere atsegin ditut.

-Soinu bat?

Haur baten irribarrea.

-Usain bat?

Larrosarena.

-Janari bat?


Menestra.

-Ura ala...

la beti ura, larunbat gauetan garagardoa...

Jose Mari Iparragirre B.H.I.

Santa Barbara bidea z/g.
20700 Urretxu
Telefonoa: 943 72 14 13
Faxa: 943 72 14 03
Posta elektronikoa:
jmiparragirre@edunet.es



Erdi mailako heziketa zikloa **Erizain laguntzailea**

Osasun familia, A-D ereduetan

Titulazioa: Erizaintzako laguntzaile-teknikaria

Iraupena: 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu)

Lanbide aukerak: Ospitaleko erizain laguntzailea, lehen artapenetako laguntzailea, kontsulta pribatuetan, zaharren egoitzetan, hortz-kliniketan laguntzailea, gaixoen zaintza.

Aurrematrikula: ekainaren 1etik 9ra



**Aurrematrikulazioa
ekainaren 1etik 9ra**
**Matrikulazioa
uztailaren 1etik 7ra**



EMAN EGURRA zure etorkizunari !



943 85 21 74 • 943 85 22 65

ZURGINTZA eta ALTZARIGINTZA LAN IRTEERAK

%95

ERDI MAILAKO ZIKLOA

LAN IRTEERAK:

- zur eta altzari enpresetan
- Biltegi kontrolatzailea
- Osagaien mekanizatzailea
- Akabera aplikatzailea

%100


GOI MAILAKO ZIKLOA

LAN IRTEERAK:

- zur eta altzari enpresetan
- Programaketan Teknikaria
- Antolamendu Teknikaria
- Laborategian Teknikaria



www.urola.org



asirauto



Hilabete honetako aukera berezia:



Audi A4 Avant TDI 130
2002. urtekoa



Volkswagen Multivan 2.4 D
1994. urtekoa



Ford Focus 1.8 TDDI
2001. urtekoa



Nissan Primastar DCI 100
2003. urtekoa



Opel Zafira 2.0 DI 16V
2000. urtekoa



Renault Megane 1.9 DTI
2002. urtekoa



Renault Space 2.2 DCI 130
2001. urtekoa

Mugitegi industrialdea, URRETXU
Telf. eta fax: 943 72 59 22 - Mugikorra: 659 67 89 79